

3.2 GAIAREN LANKETA

> Elikagaiak: errezeta liburua



- Sukaldari lanean



Helburuak

- Elikagaien hiztegia ikastea eta erabiltzea.
- Sukaldean aritzeko tresnen hiztegia ikastea eta erabiltzea.
- Sukaldatzeko tekniken hiztegia ikastea eta erabiltzea.
- Menu bat idatziz ematea.
- Instrukzioak lantzea.
- Plater bat prestatzeko pausuak ulertzea eta ordenatzea.
- Errezeta bat idaztea.

Prozedura

- Ume bakoitzari “sukaldari lanean” txostena banatu eta azaldu denen artean errezeta liburu bat egingo dutela.
- Txostena pausoz pauso egin:
 - **Hiztegia:** lehendabizi, ariketako hitzak ezagutzen ez badituzte, hiztegian bilatu eta euskarako hitzaren ondoan idatzi. Jarraian, hitzak hizki-zopan bilatu.
 - **Platerak:** lehendabizi, talde txikietan, ariketako jakiak ordenatu irudiaren, herrialdearen eta daramatzen osagaien arabera. Gero, beraien herrietako jaki tipikoen osagaiak idatzi. Bukatzeko, zuzenketa lanak egin eta umeek euren herrietako jaki tipikoez hitz egin.
 - **Teknikak:** umeek banaka lehenengo, bikoteka jarraian eta talde handian bukatzeko, sukaldatzeko tekniken araberako platerak idatzi. Egosita sukaldatzen direnak, frijituta sukaldatzen direnak, erreta sukaldatzen direnak eta gordinik jaten direnak.
 - **Menua:** umeek hiruko edo lauко taldeetan menu bat prestatu. Horretarako, lehendabizi, hezitzaileak kantitateak idazteko modua azaldu (kantitatea + ontzia + elikagaia). Gero, umeek sukaldatuko duten menua idatzi eta horretarako beharrezkoak diren elikagaien erosketara zerrenda egin. Bukatzeko, hezitzaileak zuzendu eta umeek beste ikaskideei ahoz aurkeztu.
 - **Patata tortilla:** lehendabizi, denen artean, sukaldatzeko teknikak birpasatu eta, jarraian, bikoteka, Airamek patata tortilla nola egin duen azaldu: irudiak ordenatu, pausoei hitza jarri eta erabili dituen osagaiak eta tresnak idatziz eman.

3.2 GAIAREN LANKETA

> Elikagaiak: errezeta liburua



- Sukaldari lanean

- **Errezetak:** bi talde egin eta talde bakoitzari errezeta bat banatu: legatza labean, txerri solomoa garagardotan. Talde bakoitzak egokitu zaion errezeta irakurri eta beste taldekoei ahoz azaldu (orrikoa irakurri gabe).
- **Errezeta errazen txapelketa:** Binaka errezeta erraz bat idatzi eta ikaskideei ahoz azaldu.
- **Errezeta liburua:** ume bakoitzak errezeta libururako bere errezeta idatzi. Horretarako, hezitzaileak arbelean idatzi kontuan hartu behar dituzten elementuak: hiztegia eta prozedurak idazteko pausuak (umeei azaldu edozein prozedura juntagailu hauekin idatz daitekeela). Hezitzaileak ume bakoitzaren errezeta zuzendu, umeekin komentatu eta ume guztien errezetak bildu errezeta-liburua sortzeko.